

2001eko hitzarmena berritua, eguneratua eta indartua dugu gaurko hau.

1. **Gaurkotua**, orduko egoeraren aldean, ezberdina baitugu egungo testuinguru soziolinguistikoa: euskaldun kopuruaren hazkunderan oinarritutako diglosia txikiagoko elebitasunaren bidean goaz, eta testuinguru eleaniztunean, elebidun izatera iritsi ez direnen elebitasunaren aldeko sentsibilitate handiagoa dugu.
2. **Eta indartua**, izan ere, hala Euskaltzaindia nola Deustuko Unibertsitatea, urte hauetan hazi egin garen gizarte ekimeneko erakundeak baikara. Geuri dagokigun jardunean bikaintasuna izan dugu helburu, eta horri esker, gaur egungo elkarlana zabalagoa eta oparagoa izatea ahalbideratu dugu.

Hitzarmen honen sinatzea dela eta, Deustuko Unibertsitateak berretsi nahi du 126 urte hauetan erakutsi duen euskara eta euskal kulturarekiko konpromisoa. Sorleku eta garaleku duen gizaritari zerbitzu emateko ahaleginean, etengabe ari da ekimenak sortzen azken hamarkadetan. Euskal kultura ikertu eta garatu nahian, **1974an**, Bizkaiko Ikaskuntzen Saila sortu zuen, garai hartako Bizkaiko Aldundiarekin batera, eta horren barruan liburutegi espezializatua eta euskal historiako, zuzenbideko eta hizkuntzalaritzako katedra bana. **1979an**, demokrazia ezarri ondoren, Sail hori, Euskal Ikaskuntzen Institutu bihurtu zen. Horren osagarri, Euskal Kultur Mintegia sortu zen, euskara eta euskaraz irakatsi beharra azpimarratzeko. Horren haritik jaio zen Euskal Irakaslegoa. Geroago hasiko zen lanean Euskara Kabinetea Donostiako campusean. Filosofia eta Letren Fakultatean, **1976-1977** ikasturtean, Euskal Filologiako ikasketak ematen hasi ziren. Lehenengo promozio lizentziatuen izendapena 1980-1981ean izan zen. Promozio hartako 27 lizentziatuak Euskal Herrian Euskal Filologiako titulu hori lortzen zuten lehenengoak izan ziren. **2000.** urtean, Euskararen Normalizaziorako I. Planak ekin zion ibilbideari. **2005**ean, II. Plan batek eman zion jarraipena. Eta, **2011n**, Deusto Plurilingua, Eleaniztasunerako Plan Gidaria onartu zen.

Deustuko Unibertsitatearentzat Euskaltzaindia da euskararako **argibide eta erreferentzia** erakundea. Gure jardun akademikoan, irakaskuntzan zein ikerkuntzan, bere irizpidea oso lagungarri zaigu, bai hiztegi kontuetan, bai gramatikan, bai ortografian, onomastikan

edota dialektologian. Eta jakina, elkarlanerako esparruak ugariak ditugu.

Hitzarmen honen bidez, gure asmoa da Unibertsitateak bere-bereak dituen hiru jarduera nagusitara zabaltzea lankidetzaz:

1. **Irakaskuntzaren esparruan**, alde batetik, graduondoko eta etengabeko formazioan elkar harturik ekimenak sustatzea aurreikusten dugu eta, bestetik, praktikaldiak eta euskararekin eta euskal kulturarekin loturiko gradu amaierako lanak egin ahal izatea Euskaltzaindiaren egoitzan, Luis Villasante zentroan edota Euskaltzaindiaren bulegoetan.
2. **Ikerketa eta Transferentziaren esparruan**, euskara eta euskal kulturaren inguruko ikerketa zehatzak hezurmamitzeko aukerak bildu nahi ditugu. Baita gure liburutegiak, artxiboak eta ikerketa fondoak erabiltzeko aukera eskaintzea ere. Aipatzekoa da argitalpenen elkar trukea egiteko eta elkarrekin argitaratzeko asmoa.
3. **Gizarte Proiekzio eta Konpromisoaren esparruan**, denon konpromiso eraginkorra berresten dugu Deustuko Unibertsitatea bere baitan egiten ari den euskararen normalizazioa eta erabilera sustatzeko egitasmoetan (Hala nola, euskaraz ikasteko eskaintza graduetan, gaur egungo kredituen %40ri eutsiz; ikerketaren esparruan; unibertsitateko kudeaketa eta komunikazioan erabilera areagotzeko ekimenetan) Era berean, geure indarrak batu nahi ditugu gizartearen konplizitatea sustatzeko euskararen ezagutzan, eta batez ere erabileran, arreta komunikazio eta informazio teknologietan jarrita.

Ilusio eta erantzukizun osoz sinatu dugu hitzarmena. Gure hizkuntzaren erabateko garapena dugu xede, eta bide horretan, ezagutza sortu eta transferitzea, profesionalen eta adituen prestakuntza, eta gizarte proiektzioa unibertsitate izaerakoak izanik, giltzarri izango direlakoan gaude euskararen sendotze eta erabiltze normalizaturako.

Jaime Oraá,
Deustuko Unibertsitateko errektorea